GAINTZA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

AURRERAPEN AGIRIA/ DOCUMENTO AVANCE

2024ko APIRILA

AURKIBIDE OROKORRA

"A" DOKUMENTUA. MEMORIA

"B" DOKUMENTUA. PLANOAK

GAINTZA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

AURRERAPEN AGIRIA/ DOCUMENTO AVANCE

"A" DOKUMENTUA. MEMORIA

"B" DOKUMENTUA. PLANOAK

2024ko APIRILA

TALDE IDAZLEA

TALDEKO ZUZENDARIA

Maider Romo Arizmendi, arkitektoa.

Bere lan taldea:

Josu Aranguren Etxeberria, industri ingeniaria (Imara Ingeniaritza, S.L.).

Katia Angoitia Romarate, arkitektoa (Imara Ingeniaritza, S.L.).

Itsaso Aranguren Etxeberria, industri ingeniaria (Imara Ingeniaritza, S.L.).

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Jon Orue-Etxebarria Iturri, abokatua.

INGURUMEN ARLOKO TEKNIKARIA

Alexandra Egunez Zalakain, biologoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

Bere lan taldea:

Leire Paz Leiza, biologoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

Tomas Aranburu Calafel, nekazaritzako ingeniari teknikoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

GIZA ZIENTZIEN ARLOKO ESPEZIALISTA

Mikeldi Zeberio Loinaz, soziologoa (EMUN KOOPE)

AURKIBIDE OROKORRA

"A" DOKUMENTUA. MEMORIA

"B" DOKUMENTUA. PLANOAK

"A" DOKUMENTUA. MEMORIA

AURKIBIDEA – "A" DOKUMENTUA. MEMORIA

1 SARRERA 4

1.1 AURREKARIAK 4

1.2 TALDE IDAZLEA 4

1.3 PLANA IDAZTEKO EGOKITASUNA 5

1.4 LEGE ESPARRUA 6

1.4.1 LURRALDE ETA HIRIGINTZA LEGEDIA 6
1.4.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SUSTATU ETA INDARREAN DAUDEN LURRALDE ETA HIRIGINTZA XEDAPENAK 6
1.4.3 INGURUMENARI BURUZKO XEDAPENAK 7
1.4.4 KULTUR ONDAREA 8
1.4.5 URA 8
1.4.6 LURZORUEN POLUZIOA 8
1.4.7 ERREHABILITAZIOA 8
1.4.8 IRISGARRITASUNA 9
1.4.9 ZARATA 9
1.4.10 BERDINTASUNA 9
1.4.11 AERONAUTIKA 9
1.4.12 TELEKOMUNIKAZIOAK 9
1.4.13 ERAIKINEN DISEINU TEKNIKOA 10
1.4.14 LANDA INGURUNEA 10
1.4.15 ERREPIDEAK 10
1.4.16 SALTOKIAK 10
1.4.17 BESTE BATZUK 10
1.4.18 LURRALDEA ANTOLATZEKO INDARREAN DAUDEN TRESNAK 11
1.4.19 BESTELAKO PLAN, DOKUMENTU ETA ESTRATEGIAK 11
1.4.20 NAZIOARTEKO BESTE ZUZENTARAU BATZUK 12

1.5 DOKUMENTUAREN EDUKIA 12

1.6 INDARRALDIA ETA HEDADURA 13

2 HELBURU OROKORRAK 14

2.1 SARRERA 14

2.2 HELBURU OROKORRAK 14

2.3 INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK 14

2.4 HERRITARREN PARTAIDETZAREN HELBURUAK 15

3 OINARRIZKO IRIZPIDEAK. LURRALDE ANTOLAMENDUKO EREDUA 16

3.1 BIZITEGIRAKO ERABILERA 16

3.2 JARDUERA EKONOMIKOAK 16

3.3 EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK 16

3.4 MUGIKORTASUN IRAUNKORRA 17

3.5 AZPIEGITURA SAREAK 17

3.6 LURZORU URBANIZAEZINA 17

3.7 LURRALDE ETA HIRI ANTOLAMENDUKO EREDUA 17

4 PLANEAMENDUAREN ANTOLAMENDURAKO ETA AURRERAPENERAKO ALTERNATIBAK 19

4.1 ALTERNATIBEN DESKRIBAPENA 19

4.1.1 LURZORU URBANIZAEZINEKO ALTERNATIBAK 19
4.1.2 HIRI LURZORUAREN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAREN ALTERNATIBAK 26

5 ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA (ELE) 38

1 SARRERA

1.1 AURREKARIAK

Gaintzako Hiri Antolaketako Arauen testu bategina Diputatuen Kontseiluak 1999ko azaroaren 30eko batzarraldian onetsi zuen behin betiko, eta 1999ko abenduaren 22ko GAOn argitaratu zen.

Gaintzako Hiri Antolaketako Arauen onespena eman ondoren, ondorengo urteetan proposatzen ziren 14 etxebizitza berriak (3 jarduera unitate desberdinetan banatuak) gauzatuak daude jadanik.

2021 urteko urtarrila eta martxoa bitartean, Udalak herritarrekin elkarlanean, etorkizuneko hirigintza bultzatuko zuen markoa eta lan ildoak identifikatzeko helburuarekin, parte hartze prozesu bat eraman zuen aurrera.

Egoera honetan, Gaintzako Udalak, 2022ko Ekainaren 27an erabaki zuen behean sinatzen duen taldeari eskatzea Hiri Antolaketako Arauen berrikuspena idazteko lanak, aplikatu beharreko lurzoruari eta hirigintzari buruzko legedia berriari egokituta, hark irabazi baitzuen horretarako egindako lehiaketa publikoa.

2022ko azaroa eta 2023ko urtarrila bitartean, aurrez burututako parte hartze prozesua (2021 urtea) osatzeko helburuarekin beste zenbait ekintza burutu ziren.

Guzti honen ondorioz 2023ko Abenduaren 1an Diagnostiko Partekatuaren eta Aurrerapen Dokumentuaren lehen behineko izaera zuten agiriei sarrera eman zitzaien Gaintzako Udalean.

1.2 TALDE IDAZLEA

Dokumentu hau idazten parte hartu duen lantalde teknikoa honako hauek osatzen dute:

TALDEKO ZUZENDARIA

Maider Romo Arizmendi, arkitektoa.

Bere lan taldea:

Josu Aranguren Etxeberria, industri ingeniaria (Imara Ingeniaritza, S.L.).

Katia Angoitia Romarate, arkitektoa (Imara Ingeniaritza, S.L.).

Itsaso Aranguren Etxeberria, industri ingeniaria (Imara Ingeniaritza, S.L.).

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Jon Orue-Etxebarria Iturri, abokatua.

INGURUMEN ARLOKO TEKNIKARIA

Alexandra Egunez Zalakain, biologoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

Bere lan taldea:

Leire Paz Leiza, biologoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

Tomas Aranburu Calafel, nekazaritzako ingeniari teknikoa (Ekolur Ingurumen Aholkularitza, S.L.L.).

GIZA ZIENTZIEN ARLOKO ESPEZIALISTA

Mikeldi Zeberio Loinaz, soziologoa (EMUN KOOPE)

1.3 PLANA IDAZTEKO EGOKITASUNA

Egun indarrean dauen Arauetan aurreikusitako bizitegi garapenak bere osotasunean bete dira.

Hala ere, plan orokor berri bat formulatzeko benetako beharra mugatzen duen arrazoi nagusia honakoa da: komunitateak bereganatu dituen baldintza kultural eta sozioekonomiko berriak eta azken urteetan garatu diren legediari lotutako berrikuntzei aurre egiteko hirigintza tresna eraginkorra izatea.

Lurraldearen eta Ingurumenaren legegintza, arautegi eta antolamendu arloetan izan diren ekimen garrantzitsuek beharrezko egiten dute udal antolamendurako tresna egokitzea goragoko maila duten determinazio berrietara.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea aldatzen duen 2/2014 Legeak dio, planeamendu orokorra bere zehaztapenetara egokitzeko jatorrizko 2/2006 Legeak aurreikusten zuen hasierako 8 urteko epea gaindituta, 15 urteko epea emango dela bere behin-betiko berrikustea egiteko.

Hurrengo atalean lurralde maila duten dokumentu ugariak zerrendatzen dira (LAG, LPP, LPS.,…); Plan Orokor berria, tresna horietara egokitu beharko da.

Hori guztiagatik, Gaintzako Hiria Antolamenduko Plan Orokorra idazten eta izapidetzen hasteko udalaren ekimena behar adina motibatuta eta arrazoituta dagoela uste dugu.

1.4 LEGE ESPARRUA

Udal plangintza orokorraren berrikuspena kokatzen duen lege esparrua, oinarrizko izaeraz eta autonomiaz Estatutik eratorritako hirigintza legeria orokorrak eta bereziak osatzen dute, beren hirigintza eskumenak gauzatzean, espazioari eta lurzoruari eragiten dieten alderdi guztiei buruzko legeria sektorialak eta lurralde antolamenduko dokumentuek, berriki onartu diren LAG-etatik hasita, eta eskualdeko LPP-tara.

1.4.1 LURRALDE ETA HIRIGINTZA LEGEDIA

- Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
- Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan komunitatearen parte hartzea aldatzen duena.
- 2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen duena.
- 7/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- Lurzoruaren Legearen balorazioen Erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onartua (1492/2011 Errege Dekretua).
- 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenari buruzkoa.

1.4.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SUSTATU ETA INDARREAN DAUDEN LURRALDE ETA HIRIGINTZA XEDAPENAK

- Hirigintza-estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

- 3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruzko legea garatu eta aplikatzeko hirigintza kudeaketaren erregelamendua onartzen duena.
- Ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretua, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta aplikatzeko hirigintza diziplinaren erregelamendua onartzen duena.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretua, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta aplikatzeko plangintza erregelamendua onartzen duena.
- Martxoaren 5eko 635/1964 Dekretua, nahitaezko eraikuntzaren araudia eta orubeen udal erregistroa onartzen dituena.

1.4.3 INGURUMENARI BURUZKO XEDAPENAK

- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima aldaketari eta energia trantsizioari buruzkoa.
- 6/2010 Legea, martxoaren 24koa, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina aldatzen duena.
- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoa.
- Euskadiko Natura Babesteko Legearen Testu Bategina (apirilaren 15eko 1/2014 Lege Dekretua).
- Arlo honetan aplikatzekoak diren Europako zuzentarauen multzoa.
- Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.
- 1998ko uztailaren 10eko Agindua, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan 130 taxon eta Euskadiko flora baskularreko 6 populazio sartzen dituena.
- Mendiei eta Naturgune Babestuen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura:
- Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea.
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa. 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena.

1.4.4 KULTUR ONDAREA

- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa. Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dauden katalogoak.
- Ondare arkitektonikoa (Kultur Ondasun Kalifikatu eta Inbentariatuak) eta arkeologikoa (Eremu arkeologikoak eta ustezko arkeologikoak) ireki eta tratatzeko prozedurari buruzko foru dekretu eta aginduak.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.

1.4.5 URA

- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Urei buruzkoa.
- Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen I., IV., V., VI. eta VII. atariko tituluak garatzen dituena.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauriko mendebaldeko demarkazio hidrografikoetako plan hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.
- Martxoaren 12ko 435/2004 Errege Dekretua, Hezeguneen Inbentario Nazionala arautzen duena (hala badagokio).

1.4.6 LURZORUEN POLUZIOA

- Otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak zabortegian utzita ezabatzea eta bete lanak egitea arautzen duena.

1.4.7 ERREHABILITAZIOA

- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.

- Ondare historikoa zaindu eta zaharberritzeko finantza neurriak garatu eta artikulatzen dituzten dekretu eta aginduak.

1.4.8 IRISGARRITASUNA

- Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

1.4.9 ZARATA

- Azaroaren 17ko 37/2003 Zarataren Legea.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.
- Zarataren Legea, 2003ko azaroaren 17koa, eta 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez hura garatzen duena, lehenengoa, eta zonifikazio akustikoa, kalitatearen helburuak eta emisio akustikoak, bigarrena.

1.4.10 BERDINTASUNA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoa.
- 40/2012 Legea, abuztuaren 21ekoa, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dituena.

1.4.11 AERONAUTIKA

- 297/2013 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, Zortasun Aeronautikoari buruzkoa.
- 48/60 Legea, aireko nabigazioari buruzkoa, eta haren aldaketak.
- 21/2013 Legea, aireko segurtasunari buruzkoa, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako zehaztapenak.

1.4.12 TELEKOMUNIKAZIOAK

- 11/2022 Legea, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa.

- 1/1998 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa, telekomunikazio zerbitzuetara sartzeko eraikinetako azpiegitura komunei buruzkoa.
- Martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretuaren bidez onartutako Araudia; ekainaren 10eko ITC/1644/2011 Agindua.

1.4.13 ERAIKINEN DISEINU TEKNIKOA

- Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 2006ko martxoaren 17koa, eta geroko aldaketak.
- 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, EAEko bizigarritasun baldintza minimoak eta etxebizitza eta bizitoki dotazionalak diseinatzeko arauak arautzen dituena. (EHAA 168.1.09.2022 zk.).

1.4.14 LANDA INGURUNEA

- Abenduaren 13ko 45/2007 Legea, landa-ingurunearen garapen jasangarriari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzkoa.
- 168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko nekazaritza-ustiategiak arautzen dituena eta EAEko lurralde historiko eta eskualdeetako gutxieneko laborantza-unitateak zehazten dituena.
- 515/2009 DEKRETUA, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.

1.4.15 ERREPIDEAK

- 1/2006 FORU ARAUA, ekainaren 6koa, Gipuzkoako errepideei buruzkoa.

1.4.16 SALTOKIAK

- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.

1.4.17 BESTE BATZUK

- 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.

- ED 1372/1986, ekainaren 13koa, Toki Korporazioen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen Legea, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Osasunari, hezkuntzari, gizarte-ongizateari eta lurralde-administrazioen eskumenekoak diren beste arlo batzuei buruzko araudia eta legeria (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza).

1.4.18 LURRALDEA ANTOLATZEKO INDARREAN DAUDEN TRESNAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onartutakoak.
- 534/2009 DEKRETUA, irailaren 29koa, Beasain-Zumarraga (Goierri) Arlo Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespena: 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra). Behin betiko onespena: 1998ko abenduaren 22a eta ondorengo aldaketak.
- Trenbide sarearen Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2001eko otsailaren 27a eta ondorengo aldaketak.
- Energia eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespena: 2002ko maiatzaren 14a.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala. Behin betiko onespena: 2004ko uztailaren 27a.
- Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua publikoki sortzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2004ko abenduaren 21a.

1.4.19 BESTELAKO PLAN, DOKUMENTU ETA ESTRATEGIAK

Arau-mailarik gabeko erreferentzia-dokumentu batzuk, baina Plan Orokorrak bildu eta/edo kontuan hartu beharreko gaiak garatzen dituztenak.

- Udalerriko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana.
- Biodibertsitateari buruzko Europako estrategia 2030.
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020), 2002ko ekainaren 4koa.

- Natura 2000 Sarea eta Naturguneen Euskal Sarea.
- Euskal Baso Plana (1994-2030).
- EAEko Ingurumeneko Laugarren Esparru Programa 2020.
- Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea.
- EAEko Geodibertsitate Estrategia 2020.
- 2030eko Euskadiko Biodibertsitate Estrategia.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030.
- Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2050.
- Klima Aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia 2050.
- Landa Garapeneko Programa (2015- 2020), 2015eko maiatzaren 26an onartua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Plan Orokorra.
- Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrologikoa, 2000/60/EE Europako Zuzentaraua garatuz sustatua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fauna Intereseko Eremuen Katalogoa.
- EAEn polluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa eguneratzea, IHOBEk egina.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra.

1.4.20 NAZIOARTEKO BESTE ZUZENTARAU BATZUK

- Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994).
- Gizarte Garapenari buruzko Munduko Gailurra (1995).
- Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030 (NBE 2015).
- 2016ko maiatzeko Munduko Goi-bilera Humanitarioa, Istanbulen.
- Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioa (2015), COP22 (Marrakech) eta COP23 (Bonn).
- Hondamendi Arriskua Murrizteko Sendaiko Markoa, 2015/2030erako.
- Hiri-agenda berria (Habitat III Konferentzia - Quito 2016), hiriak hurrengo 20 urteetan planifikatzeko.
- 2016 urteko Euskal Adierazpena, Europako hiri eta herrietarako ibilbide-orri berria, Iclei-Jasangarritasunaren aldeko hiri eta eskualdeen erakundeak sustatua, "Europa bizigarri eta integratzaile baterako udalerri produktibo, jasangarri eta erresilienteak" sortzea definitzen duena.

1.5 DOKUMENTUAREN EDUKIA

Aurrerapen dokumentua, orain aurkezten dena, plangintza orokorra egiteko prozesuaren aldez aurreko eta beharrezko fasea da, baina ez du erabat arautzeko borondaterik eta behin betiko onartu ondoren izango duen gaitasun juridikorik. Horregatik, 2/2006 Legeak ez du zehazten zer eduki izan behar duen gero behin betiko dokumentuan bihurtuko den horrek.

Diagnostiko partekatua egin ondoren, aurrerapen dokumentua honen eta azken dokumentuaren arteko lotura da, non antolamendu orokor eta xehatuaren proposamena jasoko den.

Aurrerapenaren oinarrizko dokumentazioak, besteak beste, alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Azalpen eta justifikazio memoria.
- Haserako dokumentu estrategikoa.
- Informazio Planoak
- Antolamenduaren Proposamen Planoak

1.6 INDARRALDIA ETA HEDADURA

Plan Orokorren indarraldia, zuzenbide dokumentu bat den aldetik, mugagabea izan arren (balizko aldaketa puntualen eta bere determinazioen berrikustearen izapidetze eta onarpenari baldintzatua), bere "gaitasuna" 10 urteko epeari lotua dimentsionatu da.

Gaintzako Plan Orokorrak aurreikusten diren gizarte beharrizanei aurre egiteko etxebizitza eskaintza antolatu beharko du. Etxebizitza eskaintza zenbatzeko egungo mekanismoak (LAG-k izaera loteslearekin erregulatutako gaia) gutxi gorabehera hurrengo hamar urterako epealdira mugatzen dira, Planaren behin-betiko onarpena jaso eta indarrean jartzen denetik kontatuta.

Bizitegi erabilera Udalerriaren funtzioaren oinarrizko beharrizan-elementu den testuinguru honetan, gainerako zuzkidurak eta zerbitzuak Plan Orokorrean proposatzen diren antolamendu proposamen ezberdinen garapenaren eta egikaritzearen menpe geratzen dira (estandar ezberdinen kuantifikaziorako indarrean diren "formulak" aplikatuta).

2 HELBURU OROKORRAK

2.1 SARRERA

Gaintzako Hiri Antolaketako Arauak 1999an onartu ziren; beraz, ez daude Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legera egokituta.

Era berean, estatuko, sektoreko (Nekazaritza eta Basogintzako LPS) eta lurraldeko (LAG) legeria berria onartu da, eta EAEko Bizigarritasunari buruzko 80/2022 Dekretua argitaratu den azkena da.

Horrek guztiak araudi orokorra eta proposatutako eremu berri bakoitzaren araudi partikularra eguneratzeko betebeharra ezartzen digu, eta, gainera, eraikuntzari eta urbanizazioari buruzko ordenantzak eta katalogoa berrikusteko aukera ematen digu (Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Lege berrira egokitzeko).

2.2 HELBURU OROKORRAK

1. Gaintzako gazteak herrian geratzeko laguntzak sustatzea.
2. Etxebizitza eta eraikin zaharren zaharberritzea sustatzea.
3. Baserrien banaketa sustatzea, txikiagoak eta bizigarriagoak izan daitezen.
4. Udalerriko natur baliabideak babestea.
5. Oinezkoentzako ibilbideak sustatzea.
6. Nekazaritzarako egokiak diren lurzoruak babestea.
7. Lehenengo sektorea bultzatzea.
8. Zainketarako lanak dibertsifikatu eta babestea.
9. Auzoen arteko edo barruko komunikazioak hobetzea.
10. Udalerrian bertan lanpostuak sustatzea.
11. Udalaren ondare arkeologiko arkitektonikoa finkatzea, ondare horren kontserbazioa, babesa eta balioa ematea sustatuz.
12. Energiaren autosufizientziarako urratsak ematea.

2.3 INGURUMEN ARLOKO HELBURUAK

Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko araudian berriki egin diren aldaketek (LAG, Jasangarritasun Energetikoaren Legea, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Ekologikoaren Legea…) eta gaur egun bizi dugun egoera klimatikoaren ondorioz estrategiak

onartzeak aukera emango digute irizpide, helburu eta neurri iraunkorrak bilduko dituen hirigintza-plan bat hausnartu, pentsatu eta idazteko.

- Lurzoru urbanizaezinean proposamenak egitea, ingurune fisikoan zehar egiten diren bide eta ibilbideen kontserbazioari eta balioari lotuak.
- Helburuak azpiegitura berdeen inguruan kontzentratzea, helburuak benetan gauzatu ahal izateko.
- Klima aldaketaren eraginekiko sentikorra den antolamendu proposamen jasangarria egitea.
- Paisaia udalerriaren izaerarekin lotzea.

  Gaintzak bere nortasun ezaugarriak gorde nahi ditu, hala nola, udalerriaren landa-izaera eta paisaiaren kalitatea. Lehen sektoreak (basogintzakoak barne) funtsezko eginkizuna du, eta garrantzitsua izango da haren beharrak udalerri osorako aukera gisa baloratzea.
- Lurraldearen funtsezko ahalmen gisa identifikatzea, babestea eta aintzat hartzea beren kokapenagatik edo beren harremanengatik paisaiaren aldetik interes edo zaurgarritasun berezia duten eremuak.

  Arreta berezia jarri beharko da paisaia aldetik interesa duten gune berezietan.
- Basoen kudeaketa, korridore ekologikoen tratamendua eta ondare eraikiaren, elementu txikien eta interes naturalistikoko elementuen babesa eta balioa ematea.

2.4 HERRITARREN PARTAIDETZAREN HELBURUAK

- Udalerrian diren baserri huts kantitatea eta hauen egoera txarra ikusita, honi irtenbide bat ematea.
- Herrigunean (herriko plazan) autoen presentzia txikitzeko plazan autoak aparkatzea debekatu eta herri sarreretan autoen aparkalekuak egokitzea.
- Udaletxe Zaharra eta Apaiz Etxea eraikinak ekipamendu bezala ezartzea. Etorkizunera begira beharrezkotzat jotzen da, nahiz eta momentuz bi eraikin hauen erabilera ez den zehazten.
- Altzagaratera doan ibilbidea egokitzea.

3 OINARRIZKO IRIZPIDEAK. LURRALDE ANTOLAMENDUKO EREDUA

Aipatutako helburu orokorrak lortzeko, proposaturiko antolamendu ereduaren OINARRIZKO IRIZPIDEAK hauek dira:

3.1 BIZITEGIRAKO ERABILERA

- Hurrengo hamarkadan udalerriko gazteen beharrari erantzungo dion bizitegi eskaintza proposatzea.
- Ahal den neurrian, etxebizitza babestuen sustapen publikoak edo espekulazio dinamikei ihes egiten dieten eta tokiko biztanleentzako sarbidea bermatzen duten aukerak sustatzea.
- Bizitegi tipologiak bat etorri beharko luke energiaren autosufizientziaren aldeko ingurumen helburu eta irizpideekin, arlo guztietan.
- Lehendik dagoen hiri trama finkatuko da, espazio publikoak sortuz edo indartuz, morfologia desitxuratuko ez duten egiturak eta tipologiak hartuz.

3.2 JARDUERA EKONOMIKOAK

Gaintzako udalerrian ez dago jarduera ekonomikorik, ez eta horiek garatzeko kalifikatutako lurzorurik ere. Gainera, ez da ezarri beharrik aurre ikusten, eta hala balitz, herriaren gizarte eta ingurumen balioak errespetatuz egin beharko litzateke.

3.3 EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

Gaintzako herrigunean herri egitura orekatua lortzea, espazio libreen eta ekipamendu publikoen arteko harreman egokiarekin. Horretarako, hauxe planteatzen da:

- Etorkizunera begira ekipamenduen erreserba nahikoa egitea (Udaletxe Zaharra eta Apaiz Etxea).
- Hilerriaren mendebaldera espazioa publiko berri bat sortzea begiratoki batentzako.
- Gaintzako herriguneko garapen-eremu berriak, kalitatezko espazio publikoak emateko moduan diseinatzea.
- Dauden maldak direla eta, komunikazioa eta barne konexioa landu beharko dira herrigunean, irisgarritasuna bermatzeko.
- Herriko plazan autoen presentzia murrizteko asmoz, aparkalekuak sortzea herriaren bi sarreretan.

3.4 MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

- Udalerriko errepideen eta landa-bideen mantenu egokia ziurtatzea.
- Garraio publikoko zerbitzuen gaineko informazioa herritarren eskura jarri eta eskaintza hobetzeko moduak aztertzea.

3.5 AZPIEGITURA SAREAK

Lehendik dauden zerbitzu-sareak hobetzea, bereziki konexio telematikoak, seinale errepikagailuak eta lan-eremu partekatu egokiak, lan-baldintza onak ahalbidetzeko.

3.6 LURZORU URBANIZAEZINA

Horretarako, besteak beste, jarduketa hauek hartu beharko dira kontuan:

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretarako eremu estrategikoak identifikatzea.
- Ingurumenari kalte egiten dioten espezieen monolaborantza lehengoratzeko moduak garatzea, ingurumena hobetzeko edo balio estrategiko handiko lurzoruak balorizatzeko kategorien bidez.
- Lurzoru urbanizaezinaren araubidea malgutu eta egokitzea, erabilera mistoak sartzeko, hala nola, basogintza eta abeltzaintza erabilerak.
- Baserrien banaketa, haien bizitza, kontserbazioa eta etorkizuneko erabilerak errazteko.

3.7 LURRALDE ETA HIRI ANTOLAMENDUKO EREDUA

Gaintzako Udalerriko Lurralde Eredua, Udal Lurraldean eta bere ingurune hurbilenean modu integratuan ezarri beharko diren antolamendu proposamenen sintesiak eta erlazioak osatzen du, Udalaren helburu orokorrekin eta herritarrek eztabaidatzen dituzten jarduteko oinarrizko irizpideekin bat etorriz, eta ondoren Udalak onartu beharko ditu.

Horretarako, eta aurreko ataletan azaldutakoarekin bat, proposaturiko antolamendu eredua jarduketa jarraibide hauen arabera ezarri beharko da:

- Lurralde osoaren lurralde-eredu orekatua finkatzea.

Horretarako, landa ingurunearen eta herri ingurunearen beharrak eta aukerak txertatu beharko dira, bi errealitateen arteko harremanak ezarriz.

- Lurzorua okupatzeko estrategia iraunkorra planifikatzea, gaur egungo hiri egituraren trama bateratuarekin jarraituz.
- Etorkizunean herrigunea pasabideko trafikotik askatu ahal izatea bermatzea eta herri-espazio berriak sortzea, herriguneko garapen desberdinak kokatzerako orduan hau kontuan hartuz.
- Eredu iraunkorragoa antolatzea, dauden baliabideak erabiliz.

  Eraikitako ondarea berrerabiltzea, banantzea eta birgaitzea sustatuz, ahal den neurrian, lurzoru berria beharrik gabe okupatzea saihestuz. Lurzoru urbanizaezinean eraikitako ondarearen birgaitzea, erabilerak malgutzea eta bereizketa bultzatzea, eraikin berriak eraikitzea saihestuz.

4 PLANEAMENDUAREN ANTOLAMENDURAKO ETA AURRERAPENERAKO ALTERNATIBAK

4.1 ALTERNATIBEN DESKRIBAPENA

4.1.1 LURZORU URBANIZAEZINEKO ALTERNATIBAK

Bi alternatiba proposatu dira lurzoru urbanizaezinean, ikuspegi tekniko, juridiko eta sozialetik ebaluatzeko.

4.1.1.1 0 AUKERA

Egungo Arauek jasotzen dutena da. Bertan lurzoru urbanizaezina bitan bereizten da:

1. Babespeko Lurzoru urbanizaezina
    a. Babespekoa: gailurrak eta paisajea, eta nekazaritzarako lurrak
    b. Lurrazaleko uren babesa
    c. Orotariko Sistemek hartutakoa
2. Gainontzeko Lurzoru urbanizaezina

4.1.1.2 1 AUKERA

Proposatutako eremuetako erabileren erregulazioa LAGetan eta Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean xedatutakotik abiatuko da. Hala ere, udal-eskumenetik doitu daiteke.

Lur ez urbanizagarriaren antolakuntzarako ondorengo kategoriak ezartzen dira:

- Babes bereziko eremua: Fauna, flora eta oreka ekologikoa babesteko aukera ematen duten lurrak dira. Baso natural eta semi-naturalak (harizti, pagadi eta haltzadiak) eta lehentasunezko interes komunitarioko habitatak dira zehazki kategoria honetan sailkatzen direnak.
- Nekazaritza-abeltzaintza eremua:
    - Balio estrategiko altua: Laborantzarako lur estrategikotzat kontsideratuak dauden lurrak dira. Hori dela eta, bere mantenua eta zaintza lehentasunezkoak dira eremu hauetan beste erabileren aurrean.
    - Trantsiziozko Landa Paisaia: Nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendutako malda ertaineko lurrek osatzen dute. Lursail hauek belardiez eta zuhaitz masa txikiez osatuta daude. Balio estrategiko altua duten lurrekin edo baso eremuekin kontaktuan daude, orokorrean, hauetako joera batera bideratuak.

- Basoa: Orokorrean basoez osatuta dagoen lur eremua. Basoaren balioa zaindu eta sustatu nahi den lur saila.
- Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua: Ibai ibilgua eta bere babeserako ertzak osatzen duten eremua. Lur ez urbanizagarrian kokatzen diren ibaiaren zatiak, kanpo utziz hiri lurra eta lur urbanizagarria. Ertzak ibaiaren mailaren araberako babes tartea dute, Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak agintzen duen moduan. Kategoria honetan sailkatzen da Ibiur urtegia ere, eta bere babes tartea.
- Sistema orokorra: Dotazio erabilerarako zuzendutako lurrak, hau da, udalerriko biztanleei zerbitzua emateko eremu libreak, ekipamendu kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio sistemaren azpiegitura orokorrak osatzen duten eremua.



Kategoria hauetaz gain, hiri antolamenduaren barruan baldintzatzaile gainjarriak ezartzen dira:

- Baliabide natural estrategikoak:
  - B.1. Korridore Ekologikoak
  - B.2. Paisaia Babesteko Eremuak (Udalerri guztia EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan sartuta)
  - B.3. Kultur ondarea



B.1 Korridore ekologikoak

Lotura-interes bereziko ibai-zatiak / Tramo fluvial de especial interés

Lotura-korridoreak / Corredores

B.2. Paisaia Babesteko Eremuak / Áreas de protección de paisaje

Katalogatutako paisaia / Paisaje Catalogado

B.3 Kultura ondarea / Patrimonio

Arkeologia ondare izendatua - Ustezko arkeologia eremua / Patrimonio arqueológico declarado - zona de presución arqueológica

Kultura ondasun izendatu gabea - beste elementu eraikiak / Patrimonio cultural no declarado - otros elementos construidos

- <u>Ingurumen arriskuak:</u>

- B.4. Higadura arriskua duten eremuak (%50 baina gehiagoko maldak; Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko eremu higagarriak)
- B.5. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak
- B.6. Eremu akustikoak (ondorengo faseetan zehaztuko da planoan, aukeratzen den alternatibaren arabera)





Horrez gain, hasierako fase honetan udalerriko azpiegitura berdea osatuko duten elementuak identifikatu dira:

- Udalerri mailan:
  - Lekuko lotura korridoreak / Corredores de enlace municipales (ondorengo faseetan zehaztuko dira, momentu honetan korridore posible batzuk marraztu dira).
  - S.O. Eremu libreak
  - Oztopo nagusiak: konektibitatea zailtzen duten udalerriko bi elementu nagusiak identifikatu dira, karretera eta hirigunea.
  - Lurrazaleko urak: udalerriko ur-ibilgu guztiak hartu dira kontuan.
- Udalerriz gaindiko azpiegitura berdearen elementuak:
  - EAEko Korridore ekologikoen sarea:
    - Lotura-interes bereziko ibai-zatiak.
    - Lotura-korridoreak.
    - Indargetze eremuak.
  - Gipuzkoako azpiegitura berde sarearen proposamena:
    - FEIG – Funtzionaltasun ekologikorako intereseko guneak.
  - Goierriko Lurraldearen Zatikako Plana:
    - Nekazaritza edota ingurumen intereseko eremuak
    - Hobetu edota kontserbatu beharreko eremuak

Ondorengo faseetan elementu bakoitzaren mugaketa zehatza egingo da eta araudi bat jarriko da elementu bakoitzarentzat.



Lekuko lotura korridore / Corredores de enlace municipales

S.O. Eremu libreak / S.G. Espacios libres

Oztopo nagusiak / Principales obstáculos

Lurrazaleko urak / Aguas superficiales

EAEko Korridore ekologikoen sarea / Red de corredores ecológicos de la CAPV

Lotura-interes bereziko ibai-zatiak / Tramo fluvial de especial interés

Lotura-korridoreak / Corredores enlace

Indargetze-eremuak / Áreas de amortiguación

Gipuzkoako azpiegitura berde sarea / Red de infraestructura verde de Gipuzkoa

FEIG - funtzionaltasun ekologikorako intereseko guneak / ZIFE - Zonas de Interés para la Funcionalidad Ecológica

Goierriko LZP / PTP de Goierri

Nekazaritza edota ingurumen intereseko eremuak / Áreas de interés agrario y/o ambiental

Hobetu edota kontserbatu beharreko eremuak / Áreas a recuperar y/o conserbar

4.1.2 HIRI LURZORUAREN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAREN ALTERNATIBAK

Aurrerapen dokumentu honetan, 0 alternatibaz gain, hirigintza garapen berriak aurre ikusten dituzten 5 alternatiba proposatu dira Gaintzako herrigunerako.

4.1.2.1 0 ALTERNATIBA

Alternatiba honek ez du hirigintza garapenerako eremu berririk aurre ikusten.

Hirigunean espazio publikoaren sistema orokorra definitzen da, komunitatearen ekipamendurako sistema orokorrarekin batera. Udaletxe berria eta elizaz gain, Apaiz Etxea eta Udaletxe Zaharra ere ekipamendurako izatea proposatzen du alternatiba honek.
Ekipamenduen inguruan kokatzen diren berdeguneak, plaza, udaletxe zaharra eta Kale txiki tabernaren aurreko aldea ere hirigunean azalera esanguratsua izango duen espazio libre bezala izendatzea proposatzen da. Egungo hilerria ekipamendu bezala kalifikatu da.

0 Alternatiba: planoa.

4.1.2.2 1 ALTERNATIBA

Aukera honek bide berri bat irekitzea planteatzen du, herri guneko sarreretako batetik elizaraino dagoen espazio publikoan autoen presentzia txikitzea ahalbidetuko duena, Bide berri honek genero ikuspegitik oinezkoen espazio seguruagoa lortzen lagunduko du.

Sortuko den bidearen alboan aparkalekuak egokituko dira, aparkalekuaren faltari irtenbidea emanez. Ondorioz, plazan egun dauden aparkaleku plazak galaraztea posible izango da. Gainera, aparkaleku berriak herriaren sarreratik gertu egongo direnez, herrira iristen direnek herrigunera sartu gabe aparkatzea posible izango litzateke, herriguneko zirkulazioa txikituz.

Herriaren beste aldeko sarreran ere aparkalekuak aurre ikusten diru aukera honek, eta horrela, herriguneko bi ertzetan edo sarreretan aparkatzeko aukera izateak, herrigunea kotxez zeharkatzeko beharra gutxitzen lagunduko du.

Kale txiki tabernaren inguruko zelaian bi eraikin proposatzen dira, bakoitzean 4 etxebizitzekin. Etxebizitza hauek espazio berde pribatua izango lukete inguruan. Profila Sotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

Herriaren beste sarreratik gertu bi etxebizitzatako eraikin bat proposatzen da eta bide batez, egun ez urbanizagarri bezala sailkatua dagoen eraikina hiri ehunean integratzea jasotzen da. Eraiki berriaren profila Sotoa edo erdi sotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

Lehen alternatiba honek 2011ko otsailean finka trukatzeko eta eransteko eskritura bidez Gaintzako Udalak hartu zuen konpromisoari erantzuten dio. Zehazki Etxeazpia lursailean salmenta libreko bi bizitzako bi eraikin eraikitzeko aukera emateko konpromezua hartu zuen Udalak.

Bide batez, proposatzen den kale berri honek alboan aparkalekuak edukiko lituzke eta beraz, plazan kotxeen aparkalekuak kentzea ahalbidetuko luke, nahiz eta lehen alternatibako bide berria gauzatu bitartean ez lukeen ibilgailuen trafikoaren gutxitze esanguratsurik ekarriko.

Eremu honetan 2 eraikin proposatzen dira, bakoitzean 2 etxebizitzekin. Etxebizitza hauek espazio berde pribatua izango lukete inguruan. Profila Sotoa edo erdisotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

Azkenik, herriaren hego ekialdeko sarreratik gertu bi etxebizitzatako eraikin bat proposatzen da eta bide batez, egun ez urbanizagarri bezala sailkatua dagoen

eraikina hiri ehunean integratzea jasotzen da. Eraikin berriaren profila Sotoa edo erdi sotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da. Egokituko den bidearen alboan aparkalekuak ere egongo dira eta honek ere herrigunera ibilgailuen trafikoa gutxitzea ekarriko luke.

Hiriguneko espazio publikoaren sistema orokorrari eta komunitatearen ekipamendurako sistema orokorrari dagokionean, 0 alternatibak jasotzen dituen proposamenak jasoko lituzke lehen alternatiba honek ere.

1 Alternatiba: planoa.

4.1.2.3 2 ALTERNATIBA

Aukera honek, lehen aukerak bezala, bide berri bat irekitzea planteatzen du, herri guneko sarreretako batetik elizaraino dagoen espazio publikoan autoen presentzia txikitzea ahalbidetuko duena, Eta aparkalekuak egokitzeko aukera ere emango du.

Aparkaleku hauek herriaren sarreratik gertu egongo direnez, herrira iristen direnek herrigunera sartu gabe aparkatzea posible izango litzateke, herriguneko zirkulazioa txikituz.

Kale txiki tabernaren inguruko zelaian bi eraikin proposatzen dira, bakoitzean 3 etxebizitza atxiki egiteko. Etxebizitzek espazio berde pribatua izango lukete inguruan. Profila gehienez Sotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

Kasu honetan, Etxeazpia lursailean sei bizitzatako eraikin bakarra eraikitzeko aukera aurre ikusten da, garapenerako lehen alternatiban baino lursail txikiagoa hartuz. Eraikinaren profila Sotoa edo erdi sotoa +B+II izatea aurre ikusten da.

Bestalde, herriguneko mendebaldean dagoen magalean ere aurre ikusten du hirigintza garapen berria. Garapen honek, herrigunean burutu den azken garapenari jarraipena emango lioke.

Dagoen kaleari jarraipena ematen kale zati honetan guztira 5 eraikin proposatzen dira, bakoitzean 2 etxebizitzekin. Etxebizitza hauek espazio berde pribatua izango lukete inguruan. Profila Sotoa edo erdisotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

Hiriguneko espazio publikoaren sistema orokorrari eta komunitatearen ekipamendurako sistema orokorrari dagokionean, 0 alternatibak jasotzen dituen proposamenak jasoko lituzke lehen alternatiba honek ere.

2 Alternatiba: planoa.

4.1.2.4 3 ALTERNATIBA

Hirugarren alternatiba honek, bigarren alternatibaren kasuan bezala, kale txiki tabernaren inguruko zelaian bi eraikin proposatzen ditu, bakoitzean 3 etxebizitza atxiki

egiteko eta baita bide berria irekitzea ere, herri guneko sarreretako batetik elizaraino dagoen espazio publikoan autoen presentzia txikitzeko eta aparkaleku berriak sortzeko helburuarekin.

Inguruan espazio berde pribatua izango luketen eraikin hauen profila gehienez Sotoa +B+I +tp izango litzateke.

Bigarren alternatibaren kasuan bezala, Etxeazpia lursailean sei bizitzatako eraikin bakarra eraikitzeko aukera aurre ikusten da, garapenerako lehen alternatiban baino lursail txikiagoa hartuz. Eraikinaren profila Sotoa edo erdi sotoa +B+II izatea aurre ikusten da.

Azkenik, lehen alternatibaren kasuan bezala, herriaren hego ekialdeko sarreratik gertu bi etxebizitzatako eraikin bat proposatzen da eta bide batez, egun ez urbanizagarri bezala sailkatua dagoen eraikina hiri ehunean integratzea jasotzen da. Eraiki berriaren profila Sotoa edo erdi sotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

Aukera honen kasuan, herriari sarbidea ematen dion errepide honen beste aldean ere garapen berri bat aurre ikusten da. Bertan 2 eraikin proposatzen dira, bakoitzean 2 etxebizitzekin. Etxebizitza hauek espazio berde pribatua izango lukete inguruan. Profila Sotoa edo erdisotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

0 alternatibako planteamenduak mantentzen ditu alternatiba honek hiriguneko espazio publikoaren sistema orokorrari eta komunitatearen ekipamendurako sistema orokorrari dagokionean.

3 Alternatiba: planoa.

4.1.2.5 4 ALTERNATIBA

Alternatiba honek, bigarren eta hirugarren alternatibetan aurreikusitakoa jasotzen du kale txiki tabernaren inguruko zelaian eta Etxeazpia lursailean. Beraz hiru etxebizitza

atxikitako bi eraikin gehienez sotoa +B+I +tp profilarekin eta sei bizitzatako eraikina gehienez sotoa edo erdi sotoa +B+II profilarekin.

Laugarren aukera honen kasuan ere, herrigunean burutu den azken garapenari jarraipena emanez, mendebaldean dagoen magalean hirigintza garapen berri bat aurre ikusten da. Bigarren alternatibaren kasuan ez bezala, aukera honetan espazio publikoaren sistema orokorra moduan kalifikatuko den eremu berria proposatu da. Sistema orokor berri honek herriguneko espazio libre publikoari jarraipena emango dio eta bide batez, bertan egokituko den aparkalekuak herrigunean autoen presentzia txikitzea ahalbidetuko du eta aparkalekuen faltari irtenbidea emango dio. Ondorioz, plazan egun dauden aparkaleku plazak galaraztea posible izango da.

Kalearen zati berrian zehar guztira aparkalekuak eta 4 eraikin ere proposatzen dira, bakoitzean 2 etxebizitzekin. Etxebizitza hauek espazio berde pribatua izango lukete inguruan. Profila Sotoa edo erdisotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

0 alternatibako planteamenduak mantentzea planteatzen da eta horri erantzunez, hilerriaren ondoan planteatutako begiratokiaren aurrean espazio librea aurreikusi da, herriko plazaren eta paisaiaren arteko harremana gordetzeko helburuarekin.

4 Alternatiba: planoa.

4.1.2.6 5 ALTERNATIBA

Alternatiba honek, bigarren, hirugarren eta laugarren alternatibetan aurreikusitakoa jasotzen du kale txiki tabernaren inguruko zelaian eta Etxeazpia lursailean. Beraz hiru

etxebizitza atxikitako bi eraikin gehienez sotoa +B+I +tp profilarekin eta sei bizitzatako eraikina gehienez sotoa edo erdi sotoa +B+II profilarekin.

Alternatiban honen kasuan, herriaren hego ekialdeko sarreratik gertu garapen berri bat aurre ikusten da. Bertan 3 eraikin proposatzen dira, bakoitzean 2 etxebizitzekin. Udaletxe berriaren ondoan, kalean beherantz gaur egun dauden bi eraikinen ezaugarri antzekoak izango dituzte eraikin hauek ere, eta herriko kale nagusiaren ondoan kokatuko dira nolabaiteko fronte honi jarraipena emanez, baina aldi berean, urrutiko paisaia ikusteko aukera mantenduz.

Eraikin berrien sarbidea kale nagusitik zuzenean gauzatu ordez, alboan aparkalekuak izango dituen bidea egokituko litzateke, era honetara plazan kotxeen aparkalekuak kentzea ahalbidetuz.
Etxebizitza hauek espazio berde pribatua izango lukete inguruan. Profila Sotoa edo erdisotoa +B+I +tp izatea aurre ikusten da.

0 alternatibako planteamenduak mantentzea planteatzen da eta horri erantzunez, hilerriaren ondoan planteatutako begiratokiaren aurrean espazio librea aurreikusi da, herriko plazaren eta paisaiaren arteko harremana gordetzeko helburuarekin.

5 Alternatiba: planoa.

5 ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA (ELE)

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 7. artikuluaren 7. paragrafoan ezartzen duenez: "udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektuak edo planak onartzeko prozeduran, euskararen erabileraren

normalizazioan izan dezaketen eragina ebaluatuko da, eta ebaluazio horretatik ondorioztatzen diren neurriak proposatuko dira".

Gaintzako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrarekin batera, eragin linguistikoari buruzko txostena egingo da, fase guztietan. Legeak ez du zehazten txosten horrek nolakoa izan behar duen; hala ere, badira erreferentziazko dokumentuak, hala nola ELE (Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko tresna), UEMAk (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) egina.

Aurrerapen dokumentu honetan Eragin Linguistikoaren Irismen Dokumentua atxikitzen da:

PLANAREN/PROIEKTUAREN
IRISMEN-DOKUMENTUA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Planaren/proiektuaren izena:	Gaintzako HAPO
Eragin eremua:	Gipuzkoa - Gaintza
Teknikarien izenak:	AMAIA UGALDE BEGOÑA
Batzordearen izena:	ELE batzordea

► **Proiektuaren helburuak hauek dira:**

Herria antolatzeko plan orokorra egitea

Planak tokiko biztanle-kopuruan/egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea eskatu dio Gaintza(e)ko Udalak ELE batzordeari. Horregatik, plan horrek hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ote duen jakiteko beharrezkoak diren indizeen kalkuluak egin dira.

· **BIZTANLEAK:** Planaren bidez aurreikus daitekeen biztanle berrien kopurua 60 (e)koa da. Kalkulu hori egiteko kontuan hartu dira 20 etxebizitza eta aurreikusi da etxebizitza bakoitzera 3,00 pertsona etorriko direla bizitzera.

Hori oinarri hartuta, hauek izan dira indizeen emaitzak:

	Biztanleak
Euskararen proiekzio-indizea	-11,76
Hauskortasun-indizea	13,33
Hauskortasun indizearen eragina	0,00
Bilakaera indizea	-11,76
Bilakaera indize orokorra	-11,76

· **BIZTANLEAK: Bilakaera indizearen -11,76 puntuko emaitza aintzat hartuta**, hizkuntza inpaktuaren azterlana egin behar dela jakinarazten dizuegu. Irismen-dokumentu hau planaren espedienteari gehituko zaio, balioa izan dezan.

Alkatearen sinadura

Teknikariaren sinadura

Gaintza, 2024ko apirila.

Fdo.: Josu Aranguren Etxeberria
Industria ingeniaria

Fdo.: Maider Romo Arizmendi
Arkitektoa